

bai aldizkaria

Bai Euskarari Elkartearen aldizkaria | 36 zk | 2022ko azaroa




LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

Etorkizuneko lan munduari begirada partekatua.

Pertsonen
ongizatea eta
industria
adimenduna
aztergai.

#EnpresareanAzoka2022



Rober Gutiérrez
[Zuzendaria]
@robergutierrez



Pertsonen ongizatea eta industria adimenduna aztergai

Enpresarean Azokaren seigarren edizioa dugu aurtengoa. Bai Euskarari Elkartea 2010ean hasi zen proiektuan lehen urratsak ematen, alor sozioekonomikoaren beste espazio bat euskaraz betetzeko eragiten. Orduetik, jardunaldiak, foroak, azokak eta telebista saioak antolatu dira enpresen eta profesionalen beharrei erantzun nahian. Krisialdiari aurre egiteko formulez aritu gara, garapen jasangarrirako helburuen aplikazioaz, pertsonen kudeaketaz, digitalizazioaz edo-eta eraldaketarako erronkez, ekintzailetzaz, enpresen finantzazioaz eta abar luze batez. Erdara da nagusi eremu honetan; horregatik, beharrezkotzat jo zen gabezia bat estaltzea eta euskara baliatzen duten enpresa hauetako profesionalak elkar ezagutzeko, elkarlana sustatzeko, hitz egiteko, eztabaidatzeko eta proiektuak partekatze baliabide bat sortzea.

Pertsonen ongizatea eta industria adimenduna izango ditugu hizpide Orona-Ideon. Aurtengo Enpresarean Azokan etorkizunera begira jarriko gara, euskal profesionalekin eta enpresekin batera, ezegonkortasun eta eraldaketa ekonomiko eta sozial hauen aurrean administrazioen zein enpresen aldetik abiatu diren estrate-

giak, adibideak eta ikasitakoak partekatze asmoz.

Gaiak alderdi ugari ditu, eta erronka handia da guztiei heltzea. Horregatik, lan munduaren etorkizunaren inguruan hausnartuko dugu, bereziki industria adimendunean egiten ari diren aurrerapausoen eta pertsonen ongizatearen arteko oreka zein den aztertuz. Gai hauen inguruan euskal enpresek dituzten estrategia eta praktika onak azaleratu eta partekatuko ditugu.

Zentzu honetan, digitalizazioak eta teknologiak garrantzi handia dute, baina ezegonkortasun garai honetan pertsonen ongizatea ere jarri nahi dugu erdigunean. Zein da gai honen inguruan euskal enpresen estrategia? Ongizatea helburu duen lehiakortasuna eraikitzen ari da euskal enpresen sarea? Nola uztartu pertsonen ongizatea eta garapen ekonomikoa? Zein aurrerapen daude industria adimendunean? Nola eragingo dute pertsonen ongizatean? Pertsonen ongizatea ardatz hartuta, ekonomia berri bat sortzen ari da? Eta, horretan guztian, euskarak zein leku du?

Galdera hauei eta beste askori erantzuten saiatuko gara profesional ugariz inguratuta.

#EnpresareanAzoka2022

Egitaraua	3
Jose Miguel Ayerza ADEGiko zuzendari nagusia	4
Jone Nolte ASLEko zuzendari nagusia eta Laborpar-eko presidentea	6
Leyre Madariaga Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzailetzaren zuzendaria Eusko Jaurlaritzan	8
Romain Roquefère eta Irati Rodriguez	10
HUPIko zuzendaria eta Negozio garapeneko arduraduna	
Elkarrengandik Ikasiz	12
Athletic Foroa	14
Komunitatearen txokoa	15

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkartea
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain
t. +34 943592148

38 Cordeliers karrika - 64100, Baiona
t. +33 603494365

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo

Rogelia de Alvaro Elkarleen Etxea A.1.1.
Panama, z/g - 01012, Gasteiz

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina,
13. bulegoa 31014 Iruñea

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:
Bai Euskarari Elkartea eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez
Argazkiak: Bai Euskarari Elkartea, Arteman Komunikazioa, Adeg, ASLE eta Eusko Jaurlaritzak.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak

Banaketa: Bai Euskarari Elkartea

Lege gordailua: SS-497-2010



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

baieuskarari.eus



#EnpresareanAzoka2022

Azaroak 3, osteguna. Orona-Ideo (Hernani)



“Etorkizuneko lan munduari begirada partekatua. Pertsonen ongizatea eta industria adimenduna aztergai”. Horixe izango da aurtengo azokan hizpide izango dugun gaia. Azaroaren 3an izango da azoka, Hernaniko Orona Ideon, Bai Euskarari Elkartek antolatuta eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesletzarekin.

Aurkezlea: **Pilar Kaltzada**

08:30-09:00 Harrera eta dokumentazio-banaketa

09:00-09:15 Aurkezpen instituzionala

09:20-10:00 Sarrera-hitzaldiak eta solasaldia
Ongizatea helburu duen lehiakortasuna eraikitzen ari gara?

- Aitziber Elola Orkestra
- Jon Las Heras EHU

10:00-11:00 Solasaldia
Euskal enpresen estrategia pertsonen ongizatea bermatzeko

- Jose Miguel Ayerza ADEGI - Fabrika
- Jone Nolte Usparicha ASLE
- Urtzi Uribebarria Andres Mondragon Unibertsitatea

11:00-11:30 Kafea. Elkarlanerako unea

11:30-12:15 Pertsonen ongizatea ardatz, ekonomia berri bat helburu

11:30 Marko orokorra
• Rakel San Sebastian Beristain
Adinberri Fundazioko zuzendari nagusia

11:50 Ongizatea eta zaintzaren zerbitzuak hobetzeko adimen artifiziala erabiltzen duten enpresen adibideak

- Wellk Aritz Guinea
- Auzozaintza Itsaso Lekuona
- Etxelagun Olatz Irulegi

12:15-13:05 Solasaldia

Adimen artifiziala eta pertsonen ongizatea, industriaren lehiakortasunerako ardatz

- Leyre Madariaga Gangoiti Spri
- Irati Rodriguez HUPI
- Josu Aztiria Orari NLP Teknologiak
- Ion Etxeberria Ikerlan

13:10-13:35 Arin-arin lehiaketa

13:35-13:45 Laburpena eta agurra

13:45 Benizzeren musika



JOSE MIGUEL AYERZA ADEGIKO ZUZENDARI NAGUSIA

“Enpresa ardatz hartuta eta pertsonen ongizatea kontuan hartuz, akordioetarako garaia da”

Jose Miguel Ayerzak *Euskal enpresen estrategia pertsonen ongizatea bermatzeko solasaldian parte hartuko du 2022ko Enpresarean Azokan. Fabrika, Enpresen Kultura Eraldatzeko Errendimendu Handiko Zentroa, martxan jartzeko lanean ari da Adegik; Gipuzkoan enpresa-kultura berria ezartzea du helburu zentroak. Kultura berri horrek pertsonen ongizatea du erdigunean.*

Berriki eman dituzue Gipuzkoako enpresen inguruko zenbait datu. Nola ikusten duzue enpresen etorkizun hurbila ziurgabetasun egoera honetan?

Orain arte, arazoak arazo, esan genezake enpresak eusten ari direla, baina pixkanaka konfiantza, eskaerak, fakturazioa, enplegua eta abar okertzen hasi dira eta kezka da nagusi.

Zein da Gipuzkoako enpresetan kezkarik handiena une honetan?

Lehenik, lehengaien eta energiaren hornidura prezioak dira kezka nagusiak; bigarrenik, lan kostu eta soldata igoerak; eta horren guztiaren ondorioz, salmenten errentagarritasunak sortzen die kezka.

Sektoreen arabera ezberdin bizi da egoera, ezta? Zein dira sektore kaltetuenak?

Denak dira kaltetuak, baina bereziki Industria aipatu beharko genuke, energia modu intentsiboan erabiltzen dutelako.

Egoera honetan, nola egin aurrera?

Bada, ez da batere erraza, egoera nahasi honen eragileak kanpo faktoreak direlako eta ez daudelako gure esku. Hala nola, inflazioa, energiaren prezioa, interesen igoerak... horiek denak gerrak eraginda. Hortzak estutu eta gure arteko elkarlana bultzatzeko ordua da orain. Administrazioa, enpresak, langileak eta sindikatuak, bakoitza ahal duen moduan saiatu behar da. Dagoeneko ari dira neurri batzuk hartzen: dirulaguntzak (deflazioa), marjinen murrizketa, soldata igoerak eta abar.

Krisi edo zalantza garaietan pertsonen ongizatea bermatzea ez da

erraza izango. Nola jokatu behar da egoera hauetan enpresetako pertsona guztien ongizatea bermatzeko?

Halaxe da, bai. Lehen esan dudan moduan, guztioi dagokigu ahaleginak egitea, baina argi dagoena da enpresen bideragarritasuna bermatu ezean, ez dela ez lanposturik, ez aberastasunik, ez politika publikorik bermatuko. Beraz, enpresa ardatz hartuta eta pertsonen ongizatea kontuan hartuz, akordioen garaia da. Era berean, kontuan hartu behar da enpresa guztien egoera ez dela berdina.

Hitz egin dezagun Fabrikaz. Enpresen Kultura Eraldatzeko Errendi-

“Hortzak estutu eta gure arteko elkarlana bultzatzeko ordua da orain”

50
urte

kulturgintzan,
herrigintzan



ekar
fundazioa

mendu Handiko Zentroa martxa hartzen doa, ezta? Kontaiguzu zer den Fabrika eta zein helburu dituen.

Fabrika eraikina datorren hilabetean, azaroan, jarriko dugu martxan, nahiz eta azken urte honetan hainbat enpresak programa desberdinak hasi dituzten. Fabrikaren helburua da enpresa eta mota guztietako erakundeen kultura hobetzea, enpresa-kultura berri bat oinarritzat hartuta. Azken finean, enpresa-kultura fabrikatzea, egitea. Edozein erakunde pertsonak osatuta dago, non beraien arteko harremanak garatzen dituzten helburu bat lortzeko. Harreman horiek egunerokoan egiteko modua izango da erakunde horren kultura. Fabrikan kultura hori sortzeko, hobetzeko edo eraldatzeko entrenamendua eskaintzen da, erakunde edo enpresa eraginkorrakoak, afektiboagoak eta egoerei moldagarriagoak lortzeko.

Zein dira enpresa-kultura berriaren gakoak?

Enpresa-kultura berriak proiektu partekatuak konfiantzan oinarrituak garatzea du helburu eta horretarako, gutxienez, ondoko zortzi printzipio hauek hartu beharko genituzke aintzat: helburu edo xede inspiratzaile bat, konfiantza, balio partekatuak, lidergo eraldatzailea, pertsonen ongizatea, gardentasuna, komunikazio eraginkorra eta kudeaketan parte hartzea.

Enpresetan kultura eraldatzeko lan horretan, pertsonen ongizateak ere garrantzi berezia du. Nola jarri pertsonen ongizatea erakundearen erdigunean?



Enpresa-kultura berriak pertsonak ditu erdigunean. Izan ere, esan dugun bezala, pertsonak eta beraien arteko erlazioek osatzen dute edozein erakunderen kultura. Eta Peter Druckerrek zioen bezala, "kulturrak estrategia jaten du gosaritarako". Beraz, ez badugu kultura egoki bat lantzen, pertsonak erdigunean jarri, etorkizun beltza izango dugu.

Euskal enpresek eta, bereziki, gipuzkoarrek, aintzat hartzen dituzte enpresa-kultura berri horren printzipioak?

Gipuzkoa izan da aintzindari. 2014tik aurrera ari gara enpresa-kultura berria sustatzen eta aurrerapausoak ematen ari dira. Fabrika, zentzu horretan, azeleratzaile bat izango da. Baina ez enpresetan bakarrik, administrazioan, hezkuntzan, kirolean eta beste zenbait esparrutan ere eragingo du. Hasiak gara askorekin hitz egi-

ten eta batzuekin dagoeneko lanean. Ez Gipuzkoan bakarrik, baita EAE eta Espainia mailan ere. Nazioartean ez dago horrelakorik. Pausoka joango gara baina oso baikorrak gara; horrelako proiektu baten behar handia dago datorkigun mundu konplexuari aurre egiteko.

Nola ezarri kultura hori erakundeetan? Nondik has gaitzke?

Lehendabizi aldatu beharraren kontzientzia hartu behar da eta hori, derrigorrez, erakundeetako zuzendaritzaren ardura da. Zuzendaritza ez badago prest, jai daukagu.

"Fabrikan enpresa-kultura sortzeko, hobetzeko edo eraldatzeko entrenamendua eskaintzen da"

#BaiPraktikaEgokia

**Euskaraz lan egiteko
20 jarraibide**



bai euskarari.eus

JONE NOLTE ASLEKO ZUZENDARI NAGUSIA ETA LABORPAR-EKO PRESIDENTEA

“Gure erronka nagusia da langileen ongizatearen eta errentagarritasunaren arteko oreka bilatzea”

Euskal enpresen estrategia pertsonen ongizatea bermatzeko solasaldian parte hartuko du Jone Nolte azaroaren 3ko Enpresarean Azokan. Lan sozietateetan pertsonen ongizatea nola bermatzen duten azalduko digu, besteak beste. Bai Euskarari Ziurtagiria du ASLEk.



ASLE Euskadiko Lan Sozietateen taldea da. Zein dira elkartearen eginbeharrak?

Lan sozietateen eta enpresa partaidetuen elkartea da ASLE eta EAEn dugu lan-eremua. 650 lan sozietate daude, gutxi gorabehera, eta horietatik 275 daude ASLEra batuta; gehienak, Gipuzkoan. Sektore askotako lan sozietateak ditugu, baina gehienak industrialak dira, % 50 gutxi gorabehera. Azken batean, enpresa guztiek komunean dituzten erronkak izaera juridikoaren eta enpresa kulturaren ingurukoak dira.

Elkarte bat izanik, gure eginkizun nagusia da lan sozietateak ordezkatzeta. Enpresek dituzten beharrak eta nahiak identifikatzen saiatzen gara eta, ondoren, instituzio eta bestelako agenteen aurrean behar eta nahi hauen berri ematen dugu: legedi aldaketak, laguntza programak, etab. Adibidez, COVID19aren krisian oso aktibo ibili gara gure enpresen beharrak identifikatzen eta gobernu ezberdinei horien berri ematen. Horrela, laguntza ezberdinak eta zenbait araudi aldatzea lortu dugu. Lobby lana ere egiten dugu, eta ez da lan erraza. Izan ere, lan sozietateak arautzen dituzten legeak, fiskalak salbu, estatu mailakoak dira, eta Madrilen negoziatu behar izaten dira. Uneotan, lan

sozietateen estatu mailako Laborparren presidentzia dugu eta, horregatik, garrantzitsua da ordezkaritza hori izatea.

Gure elkartean dauden enpresei laguntza ematen diegu beraien alboan egonda: gobernantzaren inguruan, digitalizazioan... Kontsolidazio zerbitzuak esaten diegu horiei.

Ekintzailertzan ere laguntzen dugu, sortu behar diren enpresei lan sozietate edo enpresa partekatuen izaeraren inguruko aholkuak ematen. Bestetik, transformazio zerbitzuak ere baditugu, krisian dagoen enpresa bat langileek erosteko aholkularitza emateko, adibidez, edo erretiroa hartu behar duen jabe baten enpresa langileei saltzeko garaian. Aholkularitza teknikoa ematen dugu batetik, eta legeak aldatzen ere saiatzen gara bestetik, prozesu horiek errazagoak izan daitezen.

Zer da lan sozietate bat? Zer berezitasun ditu gainerako enpresa motekin alderatuta?

Lan sozietate bat enpresa merkantila da, S.A. edo S.L. bat moduan, baina

“Gizartea alda dezakegu gure enpresen bitartez”

partaidetzaren gehiengoa langileen esku dago. Oso desberdina da proiektua ulertzeko modua enpresa konbentzional batekin alderatuta. Gure erronka nagusia da langileen ongizatearen eta errentagarritasunaren arteko oreka bilatzea. Lan egiten duten pertsona guztiek pentsamendu estrategikoa izatea ere garrantzitsua da eta, horretarako, erabakiak ulergarriagoak izan behar dira.

Kooperatibekin alderatuta, enpresa merkantilak gara. Nahiz eta langile jabeak bi rol izan, gure kasuan garrantzitsuagoa da langilearen rola jabearena baino. Lan-hitzarmen kolektiboak dituzte, Langileen Estatutuaren arabera jokatzeko dute, lan kontratuak dituzte eta prestazio guztiak dituzte. Langileek ez dute zertan parte-hartze berdina izan. Gure kasuan, parte-hartze gehienak langileen esku egon behar dira, baina bazkide kapitalistak ere egon daitezke.

Kooperatibetan ez bezala, gure bazkideek ez dute inoiz erantzukizunik, ez enpresarekiko eta ez hirugarren baten aurrean ere.

Enpresen lehiakortasuna hobetzeko zerbitzuetan ari zarete berrikuntzarik handienak egiten azken aldian. Arlo horretan, zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Egiten dugun guztia lehiakortasuna bultzatzeko da. Ekintzailetak, transformazioak eta kontsolidazioak, hiru zerbitzuek dute lehiakortasunean eragina.

Gure kasuan, lehiakortasuna lortzeko giltza bat da oreka bilatzea ekonomia garapenaren eta alderdi sozialaren artean. Badaude lidergo batzuk alderdi soziala ahaztu egiten dutenak, eta horietan lan ikaragarria egin behar dugu ASLEtik.

Programa ezberdinak ditugu talentuaren inguruan, enpresetan emakumeen presentzia areagotzeko, Agenda 2030... Ez dugu ekonomia bakarrik lantzen; gizartearen alda baitezakegu gure enpresen bitartez.

Zein da gaur egun EAEko lan sozietateen egoera ekonomikoa?

Momentu honetan zailtasun ugari daude gure inguruan eta gure enpresak zailtasun hauei aurrea hartzen ari dira. Txikiak izanda, nitxo-enpresak dira gehienak eta eskaintzen dituzten zerbitzuek balio erantsi handia dute. Gure enpresa gehienek lan handia dute, baina errentagarritasuna asko jaitsi da. Enplegu maila mantentzen ari garela esango nuke.

Hala ere, badaude arazoak dituztenak ere, energia kostuaren aldetik igoera handiak izan dituzte batzuek eta arriskuan daude.

Atzeraldi bat etorri arren, baikorra naiz. Atzeraldia egongo da, baina ez du zerikusirik izango 2008an izandako krisiarekin; lehen hilabeteak zailak izango dira, baina aurrera aterako gara.

“Atzeraldi bat etorri arren, baikorra naiz”

Pertsonen ongizatea bermatzeko enpresek dituzten estrategiez jardungo duzu Enpresarean Azokan. Zein dira estrategia horiek?

Gure kasuan jabeak langileak dira eta enpresaren aldetik hartzen diren erabaki guztiak langileen lanpostuak bermatzera zuzenduta daude. Oreka bat dago errentagarritasunaren eta langileen ongizatearen artean.

Lortu behar dugu enpresa mailan konfiantza-giro bat sortzea. Horretarako nahitaezkoa da komunikazioa egotea eta informazioa partekatzea. Giro horretan bakoitzak badauka bere rola eta badaki zer egin behar duen enpresak aurrera egin dezan.

Prestakuntza ere oso garrantzitsua da, batez ere zehar leerroak lantzeko: lan sozietateen filosofia, talde-lana, entzute aktiboa, lidergotza... Garrantzitsua da soldaten artean ere oreka bilatzea.

Ezinegona nabari da alde guztietan. Egoera hauetan, nola zaindu langileak?

Krisiak indartu egiten gaitu; zailtasunak daudenean batu egiten gara horiei aurre egiteko.

Krisi hauetan ikaskuntza asko ateratu ditugu: langileen osasuna bermatu behar dela, adibidez. Oreka bat egon behar da langileen osasunaren eta aktibitatearen artean. Neurri pila bat hartu dira enpresa aurrera eramateko: ABEEak (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak), ordu poltsak, etab. Orain enpresaren errentagarritasunarekin soldata igotzea ezinezkoa bada, igoko da posible dena. Horrela sortzen duguna da gure enpresak iragankorrak izatea.

Testuingua zeharo aldatzen ari da, bai ekonomikoa eta baita lan- eta gizarte-egoera ere. Garrantzitsua da gure enpresek hori buruan izatea, epe luzerako estrategiak ezartzeko, eta egunero adi egotea.

Eraldaketa digitala ere hemen dugu. Nola ari da eragiten lan sozietateetan?

Ez daukagu beste enpresekiko desberdintasunik. Digitalizazioa gertatzeko heldu da. Gauza positibo asko dakartza, eta garrantzitsua da negozioaren eredia egokitu behar dela. Saiatzen ari gara gure enpresek hausnarketa egin dezaten digitalizazioak dakartzan aldaketen aurrean: kontsumo ohiturak, marketina egiteko modu berriak, komunikazio kanalak... Pentsatu behar dugu ea produktuak eta zerbitzuak aldatu behar ditugun, gure marketin estrategiak egokiak diren, inbertsioak egin behar diren, pertsonen beharrezkoak diren konpetentziak dituzten... Hori guztia dakar digitalizazioak. Aldaketa sakon bati buruz ari gara eta saiaterik ari gara gure enpresek hausnarketa egin dezaten lan esparru guztietan.

LEYRE MADARIAGA ERALDAKETA DIGITALAREN ETA EKINTZAILETZAREN ZUZENDARIA EUSKO JAURLARITZAN

“Industria adimendunak kalitatezko lanpostu egonkorrak sortzen ditu soldata duinekin”

Enpresarean Azokan parte hartuko du Madariagak *Adimen artifiziala eta pertsonen ongizatea, industriaren lehiakortasunerako ardatz* izeneko solasaldian. Eusko Jaurlaritzaren Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzailetzaren zuzendaritzak esku artean dituen proiektuen berri eman digu.

Zein eginkizun nagusi dituzue zuzendaritzan datozen urteetara begira?

Betidanik, proiektu ekintzaile berriki abian jartzea lehen mailako lehentasuna izan da EAEn, eta hala izaten jarraituko du, egungo krisian susperraldia eta jarduera ekonomikoaren sorrera bizkortzeko ezinbesteko palanka gisa.

Bestalde, industriaren, gizartearen, hezkuntzaren eta abarren digitalizazioaren azkartzeak ere arlo horretan aktibo izatera behartzen gaitu administrazio publikoak.

Eusko Jaurlaritzaren azken urteotako Agenda Digitalek aurrerapen nabarmenak ekarri dituzte eusko administrazioaren eta gizarte osoaren digitalizazioan.

Orain, beharrezkoa ikusten dugu jauzi kualitatibo bat egitea, proiektu estrategiko zehatzen bidez eta dau-duen programak eta zerbitzuak indartuz.

Eraldaketa digitalaz asko hitz egingen da, baina egin, zenbat ari dira/gara egiten EAEn? Zein datu dituzue?

Euskadiko ekonomia eta gizartearen egoera aurreratuan dago Europar Batasunaren inguruko digitalizazeari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Digitalen Europako Indizearen arabera (DESI). Indize horrek Europar

Batasuneko 28 herrialdeen bilakaera konparatua neurtzen du eta zazpi-garren postuan gaude, 2020ko datuen arabera.

2021ean, eraldaketa digitaleko programen eskaria nabarmen handitu zen. 2.000 proiektu inguru aurkeztu ziren eta aurrekontuaren % 72 gehitu zen.

Aurten, gure eraldaketa digitaleko apustua 14 ekimen desberdinetan gauzatu da, 21,6 milioi euroko guztizko zenbatekoarekin. Aurreko urtearekin alderatuta, aurrekontua % 40 handitu dugu.

Etorkizunera begira, ‘Ibilbide’ kontzeptua nahi dugu martxan jarri, enpresei sentsibilizazioa, prestakuntza, diagnostikoa, esperientziazioa, eta bukatzeko, proiektuak ezartzeko laguntza eskainiz.

Zein garrantzia du eraldaketa horrek euskal industriaren lehiakortasuna garatzeko?

Gurea lurralde industrial da. Industriak gizarteari egiten dion ekarpen bereizgarrian sinesten dugu, balioa sortzeari eta kalitatezko enpleguari dagokienez. Horregatik, posizionamendua indartu nahi dugu, oinarri industrialeko ekonomia gisa, besteak beste eraldaketa digitalean oinarrituta.

Horri gehitu behar zaio zientzia, teknologia eta berrikuntza tresnak

direla aurrean ditugun erronka nagusiak konpontzeko eta garapen ekonomiko eta sozial orekatua eta iraunkorra bermatzeko.

Eraldaketa horren zatietako bat da adimen artifiziala ere. EAEn ari gara adimen artifizialean inbertitzen? Zertan, adibidez?

2021ean, 111 proiektu aurkeztu ziren eta 96 lagundu zituzten Adimen Artifizial Aplikatuaren programan onartutako 4.224.918 euroko laguntzarekin.

Laguntzen ari garen proiektuek honako gai hauek dituzte: industria-ekoizpen prozesuen kontrola, mantentze-lanak; kalitate-sistemak, piezen ikuskapena eta akatsen katalogazioa; kudeaketa administratiboa, aurrekontuen automatizazioa, fakturak, eskaerak; merkataritza eta salmenta, bezeroarentzako arreta, gomendatzaileak; osasuna: narriadura kognitiboaren neurketa, tumoreen irudi-ezagutza; logistika, ibilbideen eta zamen gomendatzaileak; hizkuntza naturala, ahozkoa eta idatzia aintzat hartzea; erabakiak, etorkizuneko aurreikuspenak, erosketak, salmentak, biltegia hartzen laguntzea; zibersegurtasuna; energia aurrezteak.

Eta horri gehitu behar zaizkio I+G+b-ko ekimenak eta adimen artifizialekin lotutako *start-up*ak sortzeko laguntzak.



garbiagoak eta osasun pertsonalizatua garatu beharko ditugu hiru trantsiziotan aurrera egiteko: teknologikoa-digitala; energia-klima; eta gizartea eta osasuna.

Eta nola laguntzen dituzue euskal enpresak?

Hainbat plan estrategikoren birtartez laguntzen ditugu. Hala nola, Espezializazio Adimenduneko Euskal Estrategia RIS3; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Plana 2030 ZTBP; eta Euskadi Eraldaketa Digitaleko Estrategia 2025, besteak beste. Teknika hauek ezagutarazteko, hedatzeko eta aplikatzeko laguntza-programa desberdinak eta bestelako zerbitzuak biltzen dituzte.

Industria adimenduna eta pertsonen ongizatea... nola ikusten duzue bi hauen arteko harremana?

Smart Industry-k hainbat modutan laguntzen dio pertsonen ongizateari. Kalitatezko lanpostu egonkorak sortzen ditu soldata duinekin, merkatuetan prezioetan bakarrik lehiatu gabe. Bestalde, enpresetan lan errepikakorak eta neketsuak ezabatzen ditu sistema automatikoekin ordezkatuz. Sistema hauek ere kudeatu behar dira, baina kalitatezko lanpostuekin.

Adimen artifizialaz baliatuz zein izango litzateke zure gomendio nagusia euskal enpresentzat haien

langileen ongizatea bermatzeko?

Adimen artifizialaren teknikak euskal enpresetan txertatzeak lehiakorragoak egiten lagunduko du, teknologikoki aurreratuago, kalitate handiagoko enplegua sortzen eta lan baldintzak hobetzen, beti ere inplikaturako alderdi etikoak kontuan hartuta.

Europako Batzordeak eskualde guztiei eskatu die Espezializazio adimenduneko estrategiak aplikatzatela, RIS3 eskakizunak deiturikoak. Zeintzuk dira plan honen baitan garatu beharrekoak Euskal Herrian?

Industria adimenduna, energia

Zein laguntza eskuratu dezakete adimen artifizialaren garapenean lan egiten duten enpresek?

Adimen artifiziala sortu eta ezartzeko laguntza-programak dituzte enpresek, hala nola: Haziteki; Euskal Industria 4.0 (2022ko aurrekontua: 1.400.000 euro); eta Aplikaturako Adimen Artifiziala (2022ko aurrekontua: 3.000.000 euro).

Araudia SPRIren webgunean dago eskuragarri.

“Industria adimenduna, energia garbiagoak eta osasun pertsonalizatua garatu beharko ditugu”

lansarean



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

**EUSKARAZKO
LAN-ATARIA**
LAN BILA ZABILTZA?
LANA ESKAINTZEN DUZU?

lansarean.eus

f t in

ROMAIN ROQUEFÈRE HUPIKO ZUZENDARIA ETA SORTZAILEA
IRATI RODRIGUEZ NEGOZIO GARAPENeko ARDURADUNA

“Gure helburua da adimen artifiziala demokratizatzea”

Hupi adimen artifizialean espezializatutako enpresa da. Bidarten jaio zen 2013an, eta 2018tik Donostian ere badute ordezkaritza. Euskal Herri osoko enpresak dituzte bezero. Adimen artifiziala eta pertsonen ongizatea, industriaren lehiakortasunerako ardatz solasaldian parte hartuko dute Enpresarean Azokan. Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu zuten 2021ean.

Zer da Hupi eta zer egiten duzue?

ROQUEFÈRE: Adimen artifizialean espezializatutako enpresa gara eta laguntzaile birtualak sortzen ditugu industria arloko bezeroentzat. 12 lankide gara gaur egun eta 60 bezero ditugu Euskal Herrian. Safran, Mondragon, Dbus eta Iberdrola dira gure bezeroak, besteren artean. Gure produktuek langileei laguntzen diete erabakiak automatikoki hartzen.

RODRIGUEZ: Enpresa industrialean askotan arazoa izaten da datu gehiegi dituztela, informazio gehiegi, eta erronka da arazoei errektiboki erantzun beharrean arazoak aurreikustea. Epe luze edo labur batean, etorkizunean pasako denaren ikuspegia eskaintzen dugu eta horri aurre egiteko gomendioak ematen ditugu. Adimen artifiziala erabiltzaile langileen lan-karga gutxitu dezakegu eta beraien esperientzia hobetu.

Nola aldatu da adimen artifiziala azken urte hauetan?

RODRIGUEZ: Hupi nekazal mundurako aplikazioak garatzen hasi zen, eta hasiera haietan inork ez zuen hitz egiten adimen artifizialaz, datuez edo *big data*z. Garai hartan arazoa zen ez zegoela daturik. Une honetan, adimen artifiziala ez da

moda bat, barneratuta dugun zerbait da eta enpresak pasa dira etorkizuneko teknologia bat dela esatetik, egunerokoan aplikatzera, eta ikusten dute honetan hasi ezean atzean geratuko direla.

Bind 4.0 azelerazio programan parte hartu genuen 2017an eta han ikusi genuen industria 4.0 eraldaketaz bazetorrela. Azelerazio programan irabazleetako batzuk izan ginen eta *Hupi Ibérica* sortu genuen Donostian. Ordura arte beste sektore batzuetan aritu ginen lanean, baina konturatu ginen Euskal Herrian industriak horrelako pisua izanda, bazela adimen artifizialeko teknologiak gure inguruan sortzeko garaia. Ordutik argi dugu adimen artifizialaren onurak baliatu behar ditugula gure eguneroko lanerako.

Zuek enpresa industrialetan egiten duzue lan batik bat, ezta? Zein erronka izaten dituzue industria- ren arloan?

RODRIGUEZ: Erronka nagusia izaten da datuak modu eraginkor batean erabiltzeko erremintak sortzea. Enpresa industrial batean, adibidez, ekoizpena optimizatzen lagun dezakegu, plangintzarentzat ahalik eta onuragarriena izateko. Bestetik, adimen artifizialak lagun dezake,

produktu baten sortze prozesuan, eskulana bukatu baino lehen ahalik eta akats gutxien izaten, akats horiek ekiditeko irtenbideak proposatuz. Makinen mantenimendu prediktiboa ere egiten dugu, makina-erremintaren osasuna bermatzeko. Produkzio lerroan egon daitezkeen geldidunak edo matxura ezberdinak aurreikusi eta ekidin ere egin ditzake adimen artifizialak. Azken finean, akatsak aurreikusteko modu bat da eta datu historikoetan oinarrituz, gomendio ezberdinak eman ditzake.

Mugikortasun enpresekin ere aritu gara. Donostibus enpresarekin, adibidez, produktu adimendunak sortu ditugu aire girotuko sistema hobetzeko, eta bisio artifizialeko kameraren bidezko irtenbide bat ere sortu dugu jakin dezaten momentu oro zenbat pertsona dauden zain geltoki bakoitzean.

Zertan laguntzen du adimen artifizialak enpresetan?

“Adimen artifiziala erabiltzaile langileen lan-karga gutxitu dezakegu eta beraien esperientzia hobetu”



RODRIGUEZ: Teknologia bat da adimen artifiziala, baina ez da lehiakortasuna hobetzeko bakarrik ezartzen, horren denaren erdigunean pertsonak daude. Pertsona horiek ahalduntzea bilatzen dugu egunerokotasunean lana hobeto egin ahal izateko eta benetan garrantzia duten erronketan fokoa jartzeko. Eguneroko su txikiak itzaltzen egon beharrean, ikuspegi globalagoa izan dezakete horrela.

ROQUEFÈRE: Osasun arloan ere egin dugu lanik. Izan ere, adimen artifizialak lagundu ahal du pertsonaren ongizatea areagotzen. Bizkaiko Foru Aldundiarentzat aplikazio bat sortu genuen adinekoei egunero galdeztzen diena zein den beraien osasun egoera. Horren helburua da osasun jarraipen bat egitea, eta larrialdi egoera bat sortu baino lehen beharrezko baliabideak eskaintzea.

Enpresak lehiakorrak izateko, uste duzue ezinbesteko dutela gaur egun adimen artifizialean inbertitzea?

RODRIGUEZ: Ez da denek erabili behar duten zerbaite, erabiltzearen. Teknologia laguntzen digu esponentzialki hazten, baina ez du zertan adimen artifiziala izan. Uste dugu onura asko dituela, baina ez da enpresa guztien-

tzat ezta edozein erronkarentzat ere. Gure helburua da adimen artifiziala demokratizatzea eta saiateren gara enpresa txiki-ertainekin lan gehiago egin. Saiatu behar gara lehiakortasun hori batzuei bakarrik eskaini beharrean, guztien eskura jartzen. Datuak eskuz pasatzen dituen enpresa bati adimen artifiziala oso urrun geratzen zaio. Badago ibilbide bat eta epe luze-ko plan bat diseinatu beharra.

Datuak eta datuak jasotzen dituzue zuen lanean. Hainbeste datu izanda, gero horiek ondo erabiltzea ez da erraza izango, ezta?

RODRIGUEZ: Datuen pribatutasuna pil-pilean dago eta oso garrantzitsua da. Ez ditugu pertsonen datuak jasotzen, enpresa industrialekin ari garenean makinaren datuak jasotzen ditugu. Datuei garrantzia ematen diegu eta horretarako sortu dugu gure plataforma; Bidarten dugu data center bat. Gure bezeroen datuak ez daude lainoan, Euskal Herrian daude, leku konkretu batean. Baina ez gara datu pilatzaileak; datu horiekin behar den plataforma edo produktua sortuko dugu eta gero ezabatu egingo ditugu. Saiateren gara ahalik eta gardenenak izaten.

ROQUEFÈRE: Bezeroak batzuetan etortzen dira Bidartera, beraien datuak nola dauden ikustera. Guretzat ez da merkea horrelako data center bat izatea, baina bezeroek oso ondo baloratzen dute zerbitzu hori.

Euskarari ere garrantzia emandiozue Hupin.

ROQUEFÈRE: Duela 4 urte hasi ginen euskara ikasten eta orain lande guztiak ikasten ari gara AEKekin. Saiateren gara gure artean ere praktikatzeko. Ez dugu proiektu berriak lortzeko egiten; uste dugu euskara erabili behar dugula Euskal Herrian. Beste ekintza batzuetan ere parte hartzen dugu: Korrikan eta Euskaraldian, adibidez.

RODRIGUEZ: Adimen artifiziala oraindik asko ingelesera bideratzen dugu, baina saiateren gara ale txikia jartzen, produktuei izena euskaraz jartzen eta abar. Hizkuntza garrantzitsua da gure komunikazio tresna delako eta pertsonekin konektatzeko erraztasuna ematen digu. Gure izaeraren parte da euskara.

Zein erronka dituzue orain Hupin? Eta etorkizunera begira?

RODRIGUEZ: Gure helburua ez da ekonomikoki garatzea, hori baliabide bat da gure ingurua sortzeko eta inguruan eragiteko. Hupiren amaierako helburua besteei ematea da. Gure ekosisteman oso pribilegiatuak sentitzen gara eta gizarteari eman nahi diogu aukeran dugun guztia: enpresa lehiakorragoak sortzen, baloreak transmititzen eta ekintza desberdinetan parte hartzen, gure inguruarekin konektatuta egonez.

“Erronka da arazoak erreaktiboki erantzun beharrean, arazoak aurreikustea”

Erantzukizun soziala, emakumezkoak lan munduan eta adimen artifiziala aztergai, 'Elkarrengandik ikasiz' solasaldietan

Bai Euskarari Elkarrengandik Ikasiz solasaldiak antolatu ditu bigarren aldiz, Kutxa Fundazioak babestuta. Hiru lagun elkartu eta solasean jarri ditugu aurten ere, kamera aurrean, bakoitzaren ikuspuntua azaldu, eztabaidatu eta elkarrengandik ikasteko asmoz.

Hiru gai, hiru solasaldi eta bederatzi parte-hartzaile izan ditugu aurtengo edizioan.

Enpresen erantzukizun sozialean sakontzen

Lehen solasaldian enpresen erantzukizun sozialean sakondu zuten Jennifer Alonsok (Sutargi), Eider Mansok (Bexen Medical) eta Miren Urkizuk (Gizatea).

Erantzukizun sozialak barne mailan eta kanpoan duen eraginaren inguruan aritu ziren solasean. Mansok aipatu zuen geroz eta eskaera handiagoa dagoela enpresetan erantzukizun soziala aplikatu dadin: "Oraingo gazteek gehiago eskatzen dute eta horrek ere egiten du enpresak erakargarriago izatea. Eta talentu hori enpresetara ekartzeko erreminta bihurtzen ari da", gaineratu zuen.

Urkizuk azpimarratu zuenez, etorkizunari begira "erronka handiak" daude: "Mundu global honetan egiten dugun guztia, bai kontsumitzaileek eta bai enpresek, eragina dute eta gure esku dago eragin hori positiboa edo negatiboa izatea. Kohesio handia duen gizarte batean bizi nahi badugu, pausoak eman behar dira bide horretan. Ingurumena zaindu nahi badugu, gure etxean hondakinak sailkatzearekin batera, eguneroko ekintzetan ere kontuan hartu behar da hori guztia, bizi garen komunitatea zaintzen".



Elkarlanerako deia egin zuen Alonsok, enpresa txiki edo handi izan erantzukizun soziala "berdin" landu daitekeela aipatuz: "Enpresaren barnean zerbait egiteko gaitasuna izan dezaket edo, bestela, erantzukizun sozialeko programak eskaintzen dituzten erakundeetan parte hartuta, beste aukera batzuk sor daitezke; kontaktua egin eta aurrera aterako dira kolaboraziorako aukera ezberdinak".



**GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK**

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus



Emakumezkoak lan munduan atzo eta gaur

Lan munduan genero berdintasunak izan duen garapenaren inguruan solastu ziren Izaskun Landaia Emakundeko zuzendari ohia, Maialen Olabe Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea eta Maite Inda Emun kooperatibako aholkularia.

Landaidak azpimarratu zuenez, enpresetan berdintasun planak ezartzen direnean hobekuntzak egoten dira, bai emaitzen aldetik eta baita pertsonen ongizatean ere. Gaineratu zuen “talentua erakartzen” dela aukerak ematen direlako. Enpresetan genero berdintasuna aplikatzea “kudeaketa aurreratuarekin lotuta” dagoela esan zuen: “Genero berdintasunean aurrera egin duten enpresek eta erakundeek erakusten dute ez dela bakarrrik justizia sozialarekin lotuta dagoen zerbait, baita kalitatearekin eta berrikuntzarekin ere”.

Indak euskara-planekin parekatu zituen berdintasun-planak: “Desiragarria iruditzen zaigu horrelako neurriak euskararekin ere hartzea. Eman diren laguntzei esker, gora egin du enpresetako berdintasun planen kopuruak; heren batek du horrelako plan bat. Euskararen eremuan, aldiz, enpresen % 1ek baino ez du euskara plana. Bi gaiak oso zeharlerro dira eta ispilu egiten dute askotan”.

Olabe emakumeen erreferentzialtasun falta ekarri zuen mahai gainera: “Faltan izan dudana da emakumeak botere- edo erabakitze-espazioetan ikustea. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea publikoan hitz egin behar duen arduradun bat da eta horretarako ahalduz bat izatea beharrezko ikusi dut”.

Zaintzaren inguruan ere aritu ziren solasaldian. Landaidak azpimarratu zuen zaintza erdigunean jartzeko behar direla “bikoteen artean konpromisoa hartzea, enpresa mailan antolatzeke beste modu batzuk martxan jartzea eta zerbitzu egokiak egotea zaintza hori ahalbidetzeko”.



Adimen artifizialaren onurak, arriskuak eta erronkak



Adimen artifizialaren ingurukoa izan zen hirugarren solasaldia. Orai NLP Teknologia enpresako Josu Aztiria, Maite Goñi EITBko Audio eta Digitaleko zuzendaria eta Irati Rodriguez Hupi-ko negozio garapeneko arduraduna izan ziren solasean.

Adimen artifiziala hainbat ikuspegitik aztertu zuten solasaldian. Rodriguezek aipatu zuen oraindik enpresetan mesfidantza sumatzen dutela adimen artifizialaz hitz egitean eta beraien lana izaten dela adibide praktikoa erakustea zer egin daitekeen ikus dezaten: “Zientzia fikzioak min handia egin digu arlo horretan. Egia da ongi erabili behar dela adimen artifiziala, baina orain enpresetan erronka da adimen artifiziala erabiltzea pertsonak erdigunean jarritz”, gaineratu zuen.

Bide horretan, Aztiriak aipatu zuen saiatu behar dela proiektuak planteatzen ditugunean proiektu “zehatzak eta ukigarriak” aurkeztu: “Asko hitz egiten da adimen artifizialari buruz, baina gutxi egiten da. Gipuzkoako adibideari jarraituz, eraman beharko genuke fabrikatzailearen ikuspuntu hori adimen artifizialera ere. Azken finean, teknologia ari gara fabrikatzen”, gaineratu zuen.

Etikaren mugak ere izan zituzten mintzagai. Maite Goñi Unescok garatzaileentzat egin berri dituen gomendioen berri eman zuen eta horiek jarraitzea “garrantzitsua” dela aipatu zuen: “Aurpegi ezagutzaz ari garenean, adibidez, gomendioek aipatzen dute teknologia hori ez erabiltzea hainbat helbururekin. Izan daiteke oso positiboa gauza batzuetarako, baina aldi berean kontrol masiborako tresna aparta izan daiteke”, gehitu zuen.

Adimen artifizialak euskararentzat eta beste hizkuntza gutxituentzat aukerak dakartzala nabarmendu zuen Aztiriak: “Momentu honetan, gai gara ingeleserako edo gaztelaniarako garatu den teknologia bat euskarara ekartzeko. Oso berri ona da hori, kostu gutxiagoarekin landu ez ditugun bideak lantzeko aukera ematen baitigu”.



Kirola eta lan mundua uztartu genituen San Mamesen

Joan den irailaren 29an kirola eta lan mundua batu genituen Enpresarean Foro berezi batean. Bai Euskarari Elkartek eta Athletic Fundazioak antolatuta, laneratzeko orduan kirolean lantzen diren balioek duten garrantziaz jardun genuen.

Nora Kortabarriak gidatu zuen saioa eta gaiaren inguruko solasaldiak izan ziren bertaratutako gazteekin batera.

Kirolarekin lantzen diren balioak zein diren azaldu zituen Athletic Fundazioko Igor Arenazak: kultura, gizartea, ingurumena eta euskararekin lotutako proiektuak garatzen ditu fundazioak.

Ondoren, kirolaren esparruan lan egiten duen Athlon enpresaren esperientziaren berri izan zuten bertaratutakoek, Judith Eraña eta Urtzi Amianoren eskutik. Athlon kooperatibak bizimodu osasungarrien sustapenean lan egiten du enpresa, norbanako zein taldeekin: kirol-medikuntzan, formakuntzan, aholkularitzan eta kirol-instalazioen kudeaketan, besteak beste.

Amaitzeko, Athletic Clubeko bi jokalaria izan genituen beraien esperientziaren berri emateko: Eli Ibarra Athletic Clubeko jokalaria ohia, eta gaur egun Athletic Club Emakumezkoen bigarren mailako kapitaina den Eider Arana. Emakumeen futbolak izan duen garapenaren berri eman ziguten bi belaunaldietako jokalariek.



Foroa ikusteko aukera dago Enpresarean.eus webgunean.







mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

Neurri handiko mekanizazioa

Ezlaño poligonoa, 21
HERNANI
T. 943 55 25 12 - 16
T. 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



17 entitate berri Bai Euskarari komunitatean

Uztailetik azarora bitartean 17 entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria, enpresan euskara erabili eta sustatzeko helburuarekin. Arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotuz ari gara pausoz pauso. Zorionak eta ongi etorri Bai Euskarari komunitatera!

1. Amañe (Zeberio, Bizkaia)
Zerbitzua euskaraz
2. Aribit Baudry (Itsasu, Lapurdi)
Euskararen bidean
3. Artepan -Plaza- (Gasteiz)
Euskararen bidean
4. Artepan -Zabalgana- (Gasteiz)
Euskararen bidean
5. CM10 (Gasteiz)
Euskararen bidean
6. Egurki Eraikuntzak (Azkoitia, Gipuzkoa)
Zerbitzua euskaraz
7. Durangoko Masters Kirol Kluba (Durango, Gipuzkoa)
Zerbitzua euskaraz
8. Gaimaz (Markina-Xemein, Bizkaia)
Zerbitzua euskaraz
9. Geu Be elkarte (Durango, Bizkaia)
Euskararen bidean
10. Gutram (Abanto-Zierbena, Bizkaia)
Euskararen bidean
11. Hadita Shoes (Gasteiz)
Euskararen bidean
12. Hontza Extrem (Otxandio, Bizkaia)
Euskararen bidean
13. Kutxa Fundazioa (Donostia)
Zerbitzua euskaraz
14. Lejarreta Seguridad (Donostia)
Euskararen bidean
15. LizagaSar Sagartokixa (Elgoibar, Gipuzkoa)
Zerbitzua euskaraz
16. PLAN B - Zure B aukera (Lasarte-Oria, Gipuzkoa)
Zerbitzua euskaraz
17. RJA Formación Presencial (Gasteiz)
Euskararen bidean

Ikusi ziurtagiridun guztien mapa:



Lazarraga Sariak banatuko ditugu azaroaren 24an

Lazarraga Sarien 7. edizioa antolatu du Bai Euskarari Elkar-teak Arabako Foru Aldundiarekin batera. Lazarraga Sarien helburu nagusia da Arabako Lurralde Historikoaren eta Trebiñuko Konderriko esparru sozioekonomikoan euskara txertatzeko eta hedatzeko egindako lana aitortzea eta saritzea. Hala, Lazarraga Sarien bidez, bi urtean behin, euskararen normalizaziorako bide honetan urratsak ematen ari diren entitateak zein pertsonak saritzen ditugu. Haien lana, konpromisoa eta helburua lortzeko duten ilusioa aitortuz.

Dagoeneko amaitu da proposamenak aurkezteko epea eta orain epaimahaiak ebatzi beharko du zein bost entitatek edo pertsonak jasoko dituzten Lazarraga Sariak. Lanabes ekimeneko partaideek osatuko dute epaimahai hori.

Azaroaren 24an, 13:30ean, izango da sari banaketa Gasteizko Artium museoan eta han emango da bost sarituen berri.



Berrikuntzak Lansarean lan-atarian







Bai Euskarari Elkar-teak kudeatzen duen Lansarean lan-ataria berritu dugu. Lan bila ari den edonorentzat interesgarria eta erabilgarria gerta daitezkeen berrikuntzak txertatu ditugu bertan. Esaterako, enpresekin harreman zuzena egiteko aukera eta CVa lan-atarian bertan sortzeko eta deskargatzeko aukera. Berrikuntza horiekin lana bilatzeko prozesua erraztu nahi izan dugu.

Bestetik, Lansarean lan ataria interesa duten hezkuntza zentroetara gerturatu eta ikasleei zein irakasleei behar besteko azalpenak eta jarraibideak emateko aukera eman nahi diegu. Azken urteetan Lanbide Heziketako zenbait zentro-tan egon gara horrelako aurkezpenak egiten eta oso baliagarria izaten dira ikasleentzat.

Lansarean nola erabili jakiteko bideo-pilula bat eta bi webinar prestatu ditugu, modu erosoan eta zehatzean jarraibideak emateko. Lansarean.eus webgunean duzue horien berri.



Egiten eta eragiten dugulako gara.



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

baieuskarari.eus

